



EMAKUNDE

EMAKUMEAREN EUSKAL ERAKUNDEA
INSTITUTO VASCO DE LA MUJER

Eusko Jaurlaritzako erakunde autonomiaduna
Organismo Autónomo del Gobierno Vasco

**2017ko ZIFRAK,
Euskadiko emakumeen
eta gizonen egoerari
buruzkoak.**

Laburpena

AURKIBIDEA

1. DEMOGRAFIA-AZTERKETA.....	3
2. EKONOMIA-BALIABIDEETARAKO SARBIDEA ETA KONTROLA	5
3. GIZARTE-BALIABIDEETARAKO SARBIDEA ETA KONTROLA	10
4. PARTE-HARTZE SOZIOPOLITIKOA ETA ERAGINA	14
5. GIZARTE ANTOLAKUNTZA ERANTZUKIDEA	17
6. INDARKERIA	19

1. DEMOGRAFIA-AZTERKETA

2016an, EAEn 2.171.886 pertsona bizi dira guztira; horietarik % 51,4 emakumeak dira (1.116.345 emakume). Lurraldeka banatuta, hau da proportzioa: % 52,4 Bizkaian, % 32,7 Gipuzkoan eta % 14,8 Araban.

EAEko emakumeen eta gizonen pisu erlatiboa aztertuta, ikusten da emakume gehiago dagoela 50 urtetik gorako adin-tarte guztietan, eta alde hori asko nabarmentzen da 85 urtetik gora, adin-tarte horretan emakumeak baitira herritarren bi heren. Hala ere, beheragoko adin-tarteetan gizon gehiago dago, aldea beti txikia izan arren.

Urte honetan, gehitu egin dira EAEn erroldatuta dauden emakume atzerritarrak: 69.076 emakume atzerritar, hau da, lurraldean dauden emakumeen % 6,2. Hazkunde horrek gehitu egin du emakumeen proportzioa atzerritarren artean, ia erdiak baitira emakumeak (% 49,5). Emakume atzerritarren artean, lautik bat baino apur bat gehiago Hego Amerikako herrialdeetatik dator (% 27,4).


2016an, 7.985 ezkontza erregistratu dira; horietatik 179, sexu bereko pertsonen artekoak. Deuseztasun, dibortzio eta banantze kopurua nahiko egonkor dago (4.007); gehienak dibortzioak izan dira (% 96,4). Seme-alabak dituzten ezkontideen artean, aiten eta amen arteko zaintza partekatuak gehituz jarraitu du, eta azken lau urteetan, seme-alaben zaintza partekatua eman duten dibortzio-sententziak % 9,2 izatetik % 19,0 izatera pasatu dira.

Gero eta jaiotza gutxiago izateko joera areagotu egin da 2016an. 2015ean, 530 jaiotza gutxiago izan ziren; azken urtean, berriz, 608 gutxiago (guztira, 18.240 jaiotza). Amen % 71,6 30 urtetik 39 urtera bitartekoa da.

2016an, 21.214 heriotza erregistratu dira, aurreko aldi baino 289 gutxiago, emakume gutxiago hil direlako (10.432, guztira). Emakumeen hilkortasun-tasa (9,3) gizonena baino txikiagoa da adin-tarte gehienetan. Emakumeen eta gizonen arteko alde hori areagotu egiten da adinarekin: 45 urtera arteko adin-tarteetan ez da diferentzia-puntura iristen, baina 70 urtetik aurrera, 10 puntuz gehitzen dira.

DEMOGRAFIA-AZTERKETA


**BIZTANLERIA
GUZTIRA, EAE 2016:**
2.171.886




Bizi-itxaropena

EMAKUMEAK	85,9 URTE
GIZONAK	80,4 URTE
Emakumeak	Guztizkoaren gaineko %
> 70	% 59,7
> 80	% 64,8

EAE-KO BIZTANLEEN JATORRIA. 2016



EAE-N BIZI DIREN EMAKUMEAK. 2016



JAIOTZA-TASA, EAE, 2016

2016 Jaiotzak, guztira **18.244 (% 3,2 gutxiago, 2015. urtearen aldean)**

Amen % 34,9: 35-39 adin-tartekoak (jaitsiera txiki bat)

Ama izateko adina, batez beste: 32,8 urte (aldaketarik ez)

Amen % 43,1ez zegoen ezkontuta (goranzko joerak jarraitzen du).

Jaiotzen % 21,2 ama atzerritarrei dagokie (goranzko joerak jarraitzen du)

HERIOTZA-TASA, EAE, 2016

2016 Heriotzak, guztira: **21.214 (% 49,2 emakumeak; gutxiago, 2015. urtean baino)**

Heriotza-tasa gordina (heriotzak, 1.000 biztanleko): 9,8 guztira (-0,1) eta 9,3 emakumeak (-0,3)

2. EKONOMIA-BALIABIDEETARAKO SARBIDEA ETA KONTROLA

Azken hamarkadetan, txikitu egin da emakumeen jarduera-tasaren eta gizonen jarduera-tasaren arteko aldea, nahiz eta hurbilketa hori gizonen jarduera murriztearen ondorioz ere gertatu den. 2016an, lan egiteko adinean zeuden emakumeen % 52,0 aritu da lan-merkatuan (gizonen tasa, berriz, % 62,2 izan da). Zifra horiek aurreko urtekoak baino txikiagoak dira; gizonena, bereziki (-1,2 eta -0,2).

Gazteen jarduera-tasak herritar guztiena baino txikiagoak dira, baina emakumeen eta gizonen arteko oreka handiena ere gazteen artean gertatzen da (% 26,1 eta % 27,9). Adinean gora egin ahala, handitu egiten da desoreka, eta larriagotu, 45 urtetik aurrera; izan ere, adin horretatik aurrera nabarmen jaisten da emakumeek merkatuan duten presentzia, gizonena baino askoz gehiago (% 38,1 eta % 50,9).

Lan egiteko adinean dauden herritarrak orokorrean aztertuta, nola emakumeek hala gizonek gehiago parte-hartzen dute lan-merkatuan seme-alabak dituztenean. Zehazki, 2 seme-alaba edo gehiago dituztenen jarduera-tasa oso da handia (% 77,1 emakumeentzat eta % 88,1, gizonentzat).

2016an, EAEko emakumeen jarduera-tasak goia jo du: % 45,0, nahiz eta gizonen tasa baino 8,5 puntu beherago dagoen. Adinaren arabera, berriz ere oreka handiagoa dago beheko adin-tarteetan (emakumeen eta gizonen arteko aldea puntu bat baino txikiagoa da); 45 urtetik gorako emakumeen eta gizonen artean, berriz, 10 puntura hurbiltzen da aldea.

Gizarte Segurantzako afiliazioa aztertuta, 2016an, batez beste, emakumeen 425.036 afiliazio izan dira, gizonenak baino 60.000 gutxiago.

2016an, emakumeen langabezia-tasa % 15,1etik % 13,6ra pasatu da, azken urteotako joeraren kontra. Krisia baino lehen, 2007an izandako % 3,6tik urruti badago ere, hobekuntza-sintomak ageri dira lehen aldiz. Gizonen eta emakumeen langabezia-tasa nahiko antzekoa da, nahiz eta gizonena pixka bat txikiagoa izan den (% 13,3).


Emakumeek eta gizonak lan-merkatuan duten diferentziari buruzko datu garrantzitsu bat lanaldi-motari buruzkoa da: lanaldi partzialean ari direnen % 75,7 emakumeek dira; lanaldi osoko enpleguan, berriz, % 40,7 baino ez dira.

Bestalde, lan-merkatuko segregazio horizontalak ez du erakusten zuzenketa nabarmenik gertatzeko zantzurik, eta aldaketak oso motel gertatzen dira. 20 urtetan, emakumeen pisu erlatiboa gehitu egin da sektore guztietan, baina emakumeen eta gizonen arteko diferentziak ez dira zuzendu. Zerbitzuen sektorean emakumeen pisu erlatiboak 8 puntu egin du gora; eraikuntzan, 6,6; industrian, 6; lehen sektorean, 0,5; eta emakumeen enpleguaren % 88,9 hirugarren sektorekoa da.


Emakumeen eta gizonen ekintzailtza-indizean 0,2 puntuko aldea dago (3,2 emakumeak eta 3,4 gizonak). 2016an, emakumeak % 48,5 dira ekintzailtzaren hasierako fasean dauden guztien artean; ekintzailtza finkatuan, berriz, apur bat okerrago daude (% 46,9 dira), baina 2011. urteaz geroztik izan duten bilakaera esanguratsua da.

LAN PRODUKTIBOA


Jarduera-tasaren bilakaera




Jarduera-tasa, adinaren arabera, 2016




Jarduera-tasa, seme-alaben arabera 2016




Okupazio-tasaren bilakaera




Okupazio-tasa, adinaren arabera




Langabezia-tasaren bilakaera





Laburpena 2016





Gizarte Segurantzaren afiliatutako emakumeak, lan-altan daudenak (%)



Enplegu-eskatzaileak guztira eta langabezian dauden enplegu-eskatzaileak 2016




Erregistratutako kontratuak, kontratu-motaren eta lanaldi-motaren arabera




Emakumeen kontratuak, guztira:
468.231

Gizonen kontratuak, guztira:
458.368


Biztanleria landuna, lanaldi-motaren arabera. 2016



Ekintzailtza 2016



EAEko biztanle landunak, lan-lehentasunen arabera, sexuka. 2016 (%)



3. GIZARTE-BALIABIDEETARAKO SARBIDEA ETA KONTROLA

2015/2016 ikasturtean, azken urteotako joera errepikatzen da: derrigorrezko hezkuntza eta haur hezkuntza ikasten duten ikasleen kopurua orekatuta dago, nahiz eta DBH amaitzean desberdintasunak agertzen diren. Batxilergoan eta Unibertsitatean, emakume gehiago daude; lanbide heziketan, berriz, gizon gehiago.

Bestalde, EAEko neska gazteen eskola-uzte goiztiarraren tasa (5,0) mutil gazteena baino nabarmen txikiagoa da (10,7).

Derrigorrezko ikasketak amaituta, emakume gehienek jarraitu egiten dute Batxilergoa ikasten (15.781 emakume) eta unibertsitate-ikasketak egiten (35.231). Emakumeen presentzia askoz txikiagoa da Lanbide Heziketan, bai erdi-mailako graduan (4.841), bai goi-mailako graduan (7.413).

Emakumeak % 34 dira erdi-mailako Lanbide Heziketan eta % 37,6 goi-mailakoan, eta osasuna, irudi pertsonala eta administrazioa eta kudeaketa lanbide-arloetan biltzen dira. Zehazki, goi-mailako Lanbide Heziketan emakumeen gehiengo erabatekoa da Irudi Pertsonalean eta Ehungintzan (% 96,2 eta % 86,7); aldiz, Garraioan eta Ibilgailuen Mantentzean eta Elektrizitatean eta Elektronikan, ia ikasle guztiak mutilak dira (% 97,9 eta % 96).

Unibertsitate-ikasketetan matrikulatutako ikasleek hautatzen dituzten adarren artean, desberdintasun handienak Osasunaren Zientzian (% 74,6 emakumeak) eta Ingeniaritza eta Arkitekturan daude (% 71,8 gizonak). Horiek horrela, emakumeak batez ere zaintzarekin, irakaskuntzarekin edo hizkuntzekin lotutako graduetan biltzen dira; gizonak, aldiz, gehiago dira irakaskuntza teknikoetan, ingeniaritzetan eta elektronikan.

Diferentzia horiek gutxitu egiten dira master ofizialetarako eta doktoretzetarako matrikuletan, oreka handia baitago emakumeen eta gizonen artean.

Goi-mailako hezkuntzan emakume gehiago egotearen ondorioz eta ikasketen bereizketaren ondorioz, lanean dauden emakumeen % 17,1 beren prestakuntza-mailatik beheragoko lanpostuetan daude, eta goragoko kalifikazioa izatearekiko desoreka hori gizonena baino 4 puntu handiagoa da.


EAEko emakumeen batez besteko errenta pertsonala 15.175 € zen 2015ean, eta ia 10.000 euroko aldea ikusten da gizonen errenta pertsonalaren aldean. Errentarik gabe edo 8.000 eurotik beherako errentekin daudenen artean, askoz

ere gehiago dira emakumeak, gizonak baino; aldiz, goi-mailako errentak dituztenen artean, gizonak dira gehiago. Gainera, desberdintasun hori adin guztietan ikusten da, edozein dela ere ikasketa-maila.


Pentsioetan ere desberdintasunak ikusten dira. Emakumeen artean, pentsiorik ohikoena alarguntzarena da (129.425 emakume) eta gizonen artean, erretiroarena (220.950 gizon). Azken horretan gertatzen da diferentziarik handiena batez besteko pentsioen artean. Nahiz eta 65 urtetik gorakoen artean emakume gehiago dagoen, 94.425 gizon gehiagok jasotzen dute pentsio hori; pentsioaren hileko zenbatekoa 878,1 € da, batez beste.

Pertsonen eta familien behar oinarrizkoenak betetzeko prestazioei dagokienez, EAEko 35.951 emakumek DSBE jasotzen zuten 2016an (guztien % 56,3).

HEZKUNTZA




Unibertsitatean matrikulatutako ikasleak, jakintza-arloka, sexuaren arabera




ERRENTA


Batez besteko errenta pertsonala, errenta-motaren arabera. 2015



Batez besteko errenta pertsonala 2015




Guztirako ordainketa garbia, orduka, sexuaren eta adinaren arabera. 2016




PENTTSIOAK ETA BALIABIDE SOZIO ASISTENTZIALAK


Batez besteko pentsioak, pentsio-motaren arabera, sexuka. EAE, 2016



Egoitzak eta eguneko-zentroak, 2016



DSBE laguntzen titularrak, 2016



4. PARTE-HARTZE SOZIOPOLITIKOA ETA ERAGINA


Eusko Legebiltzarrean eta Batzar Nagusietan emakumeek eta gizonek duten presentziak nahiko orekatua izaten jarraitzen du 2016an, emakume kopurua apur bat handiagoa dela.

2016an, hiru lurraldeetako hautagaitzetan emakumeak erdia baino gehiago izan direlako gertatu da emakumeen presentzia handi hori.


Instantzia ekonomiko eta sozialetan, ordea, aurrerabidea askoz ere txikiagoa da. Emakumeek 2017an sindikatu nagusienean batzorde eragileen eta idazkaritza nagusien % 40 hartu badute ere, askoz gutxiago dira enpresa handietako administrazio-kontseiluetan (%26 inguru), eta horietan emakume bat ere ez da presidente. Eta egoitza EAEn duten finantza-erakundeetan, are txikiagoa da emakumeek administrazio-kontseiluetan duten presentzia.

PARTAIDETZA / BOTEREA


Emakume hautagaiak (%), Eusko Legebiltzarrerako hauteskunde-zerrendetan. EAE 2001-2016




EAEko administrazioetan enplegatutako pertsonak, administrazio-motaren eta sexuaren arabera. 2016



Sindikatu nagusietako idazkaritza nagusiak eta batzorde eragileak, sexuaren arabera. 2017



EAEn egoitza duten finantza-erakundeetako presidenteak eta administrazio-kontseiluak, sexuaren arabera. 2017







5. GIZARTE ANTOLAKUNTZA ERANTZUKIDEA

Lan produktiboa eta erreproduktiboa uztartzeko ezarrita dauden neurriak baliatzen dituzten gehienak emakumeak dira, eta arlo horretako aurrerabideak oso dira murriztak. Esate baterako, amatasun-prestazioak emakumeek baliatzen dituzte nabarmenki (% 95), eta emakumeak dira lan-merkatuan lanaldia murrizten dutenak edo eszedentziak hartzen dituztenak adingabeak edo adinekoak zaintzeko.


Hori denboraren erabilera gertatzen den diferentzian islatzen da: emakumeek, baita lan ordaindua dutenean ere, gizonek baino askoz ordu gehiago ematen dute etxeko lanetan eta zaintza-lanetan. Diferentzia horrek izan duen bilakaeran, joera positiboa ikusten da azken urteotan, baina motelegi doa.

LAN ERREPRODUKTIBOA




DENBORAREN ERABILERA

Biztanleria landuna, etxeko lanak egiten emandako ordu- kopuruaren arabera. 2016



Seme-alaben eguneroko zaintza




6. INDARKERIA

3.774 emakume indarkeriaren biktima izan dira EAEn, 2016an. Horien artean, lautik ia hiruk bikotekideen edo bikotekide ohien eskutik jasan dute indarkeria, 746k senitartekoen erasoak jasan dituzte, eta 231k erasoak izan dituzte beste eremu batzuetan.


2016an, bi emakume hil dira indarkeria-mota horrengatik. Aurten, indarkeriaren biktima izan diren (identifikatutako) emakumeen % 73k erasotzaileak salatzekeko urratsa eman zuten.

EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIA


Emakume biktimak, indarkeria-motaren arabera. 2016



Emakumeen aurkako indarkeriaren biktimizazioen bilakaera, indarkeria-motaren arabera. EAE 2002-2016



Emakumeen aurkako indarkeriaren biktima izan diren emakumeak, adinaren arabera, eta erasotzaileak, adinaren arabera.



Emakumeen aurkako indarkeriaren biktimak, jaioterriaren arabera. EAE, 2016

